



1. ALDIKO PROBLEMAK ETA SOLUZIOAK

1.- EGUTEGIA

Martxo						
A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Irudian, martxoari dagokion egutegiko orria duzu eta, ikus dezakezunez, 3x3 neurriko lauki bat aukeratu da.

- Kalkulatu, balio absolutuan, laukiaren diagonalen muturretako daten biderkaduren arteko diferentzia.
- Aukeratu beste 3x3-ko lauki bat eta errepikatu goiko apartaduko kalkuluak.
- Beste edozein 3x3 neurriko lauki baten kasuan emaitza bera lortuko al da? Arrazoitu.

SOLUZIOA:


- $22 \times 10 - 24 \times 8 = 220 - 192 = 28$
- Beste edozein lauki batekin diferentzia berdina lortuko da
- Edozein 3x3-ko lauki honela adieraz dezakegu:

x	x+1	x+2
x+7	x+8	x+9
x+14	x+15	x+16

Eta eragiketak egiten $(x+14)(x+2) - x(x+16) = 28$

Beti 28 lortzen da

2.- TABERNAN



Taberna batean irudian ikus daitekeen bezalako kopa batean “Aitzurrero” izeneko eta 6 eurotan zerbitzen duten koktel bat prestatzen dute ($AB = 8$ cm eta $CD = 10$ cm).

“Aitzurrero Erdia” ere prestatzen dute: kopa bera erabilia baina bere altueraren erdiraino beteta soilik eta 2 € baino ez dute kobratzen berarengatik.

- “Aitzurrero” batekin zenbat “Aitzurrero Erdia” lor ditzakete?
- Zenbat eurotan saldu beharko lukete?

SOLUZIOA:

- Aitzurreroaren eta Aitzurrero Erdiaren konoen altuera eta radioen arteko erlazioa $1/2$ batekoa da. Beraz, bolumenen arteko erlazioa: $(1/2)^3$. Aitzurrero batekin 8 Aitzurrero Erdi lor ditzakegu
- Aitzurrero Erdia $6/8 = 0,75€$ -tan saldu beharko lukete

Hemendik aurrera problema a) atalekoan bihurtu da: inurria berriro geratuko da C erpinean 3 buelta eta 56 etenaldi egin eta gero.

Beraz, C erpinean geratuko den aldi kopurua: $1 + \text{Osoa}((2000-42)/56) = \mathbf{35 \text{ geldialdi}}$

Arrazoinamendu analogo batekin honako ondorio honetara iritsiko gara: **A, C eta F erpinetan 35 geldialdi** egingo ditu.